


Euskal biztanleen bizitzarekiko asetasun globalak haziz jarraitu zuen 2017an eta 7,6 da

2014 urtearen aldean, hobera egin dute ongizate pertsonalaren adierazle guztiek, gogo-aldarteak izan ezik

Otik 10era, bizitzarekiko asetasunari 7,6ko nota jartzen diote euskal biztanleek, Eustaten datuen arabera, 2017an. 2014an 7,1 zen; hobera bost hamarrenez.

Ongizate pertsonalaren inkestan informazio zehatza ematen da Euskal AEko biztanleen ongizate-pertzepzioaz, eginiko galderek batez ere dimentsio materialaz bestelako alderdiak neurtzen dituztelarik.

1. grafikoa: Norberaren ongizatearen adierazleen batez besteko balorazioa. 2014 eta 2017



Iturria: Eustat. Norberaren ongizate-inkesta NOI

Euskal AEn notarik onena (8,4) gizarte klase altuko edo ertain-altuko pertsonak; txarrena (5,4) osasun eskasekoek.

Adierazleak okerrera egiten du bai osasuna eskasten denean, bai beheragoko gizarte klaseetan, bai adinarekin ere: 16-24 urte bitartekoek 8,1; 65etik aurrerakoek 7,2. Ikasketa-maila zenbat eta handiagoa, baita balorazioak ere.

Puntuaziorik onenak, bikoteek, bai guraso direnek (7,8), bai ez direnek (7,6); pertsona bakarrek 7,2 eta berdin haurren batekin bizi diren aita edo ama bakarrek.

Gizon eta emakumeen artean alde handirik ez. Gipuzkoarrek 7,7; Arabar eta Bizkaitarrek 7,5.

Batez bestekoaren azpitik (7,5) Bizkaian edo beste erkidegoetan jaioak.

Langabeek (7,1) puntuaziorik baxuenetakoa.

1. taula: Norberaren ongizatearen adierazleen batez besteko balorazioa, egoitza lurralde historikoaren arabera. 2014 eta 2017

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	2014	2017	2014	2017	2014	2017	2014	2017
Bizitzarekiko asetasuna	7,1	7,6	7,1	7,5	7,0	7,5	7,2	7,7
Bizitzaren balioa	7,5	8,0	7,5	8,0	7,6	7,9	7,5	8,0
Aisialdiarekiko asetasuna	6,5	6,7	6,6	6,6	6,4	6,7	6,6	6,9
Etxebizitza- eta ingurumen- asetasuna	7,2	7,4	7,2	7,4	7,1	7,3	7,2	7,4
Etxeko ekonomiarekiko asetasuna	6,4	6,8	6,4	6,7	6,3	6,7	6,6	6,9
Gogo aldartea	6,5	6,3	6,7	6,4	6,3	6,2	6,7	6,3
Harreman pertsonalak	7,5	7,6	7,4	7,6	7,5	7,6	7,5	7,6
Pertsonekiko konfiantza	6,3	6,5	6,4	6,4	6,2	6,4	6,4	6,5
Botere publikoekiko konfiantza	3,4	4,5	3,4	4,5	3,4	4,5	3,3	4,4

Iturria: Eustat. Norberaren ongizate-inkesta NOI

Bizitzaren Balioak notarik onena, 8

Norberaren bizitzaren balioaren nota, alegia, gure bizitzak zenbateraino merezi duen, 8 batez beste, 2014an baino lau hamarren gehiago. Biztanleen %68,3rentzat "handia", %3,1entzat "txikia".

Emakumeek (8,0) zertxobait hobeki gizonek (7,9) baino. Bizkaian bizi direnek baloratzen dute gutxien (7,9) haien bizitza, baina apenas dagoen alderik. Arabar eta Gipuzkoarrek 8,0.

Pertsona okupatuak 8,2; ez-aktiboak eta langabeek 7,8.

Adierazleak okerrera egiten du osasuna eskasten denean, adinarekin edo gizarte-klaseetan behera bagoaz; nota hobetzen du prestakuntza-mailak.

Harreman pertsonalak (7,6) ongien baloratutako bigarren alderdia

Harreman pertsonalak gehiago baloratzen dira prestakuntza mailak edo gizarte klaseak gora egin ahala. Balio gorena (7,8) osasun onekoen artean eta minimoa (7,2) eskasekoen artean.

Langabeek (7,5) harreman pertsonal okerragoak okupatuak (7,7) eta ez-aktiboak (7,6) baino. Alde handirik ez sexuen edo lurraldeen artean.

Atzerrian jaioak (7,5) notarik txarreana.

Etxebizitzaz eta inguruaz asetasun handia ia kolektibo guztietan

Etxebizitzaz eta inguruaz (7,4) klase altu edo ertain-altukoak notarik (7,9) onena; ondoren osasun onekoak (7,6). Gizonak (7,5) asebateago emakumeak (7,3) baino.

Arabian, Gipuzkoan, beste erkidegoetan jaioak (7,4), Bizkaian eta atzerrian jaioak (7,3) baino hobeto.

Balio baxuena (6,7) osasun txarrekoek.

Gogo aldarteari zuzenean eragiten dio antzemandako osasunak

Gogo aldaratearen batez bestekoa 6,3 da, 2014an baino bi hamarren azpitik; baxuena osasun txardunek (5,1); altuena (6,6) osasuntsuek. Bigarren baxuena (5,9) gizarte klase baxukoek.

Adierazleak okerrera egiten du osasuna eskasten denean; hobera gizarte klaseetan gora.

Bizkaian bizi direnek (6,2) baxuena. Araban 6,4, eta Gipuzkoan 6,3. Aldarterik txarrena (6,0) atzerrian jaioek.

Adierazleak nota hobea du gizon artean (6,5; emakumeek 6,1). 35-49 urte bitartekoek 6,2; 34tik beherakoek 6,4 eta 50etik gorakoek 6,3.

Adindunak asean aisialdiarekin

Aisialdiarekiko batez besteko ajetasuna, 6,7. 65 urtetik gorakoek 7,9, altuena, eta 35-49 bitartekoek baxuena (5,8). Ez-aktiboek 7,6, okupatuak 6,0.

Emakumeek 6,7; gizonek 6,8. Bizkaian bizi direnek 6,7, Araban 6,6 eta Gipuzkoan 6,9.

Puntuaziorik txarrena (6,5) haurren batekin bizi diren aita edo ama bakarrek; haurrik gabeko bikoteak 7,3.

Gizarte klase baxukoak eta langabeak gutxienik asean etxeko ekonomiarekin

Etxeko ekonomiarekiko ajetasuna (6,8) gora doa gizarte klasearekin; klase baxuan 5,3; altu eta ertain-altuan 7,8.

Gipuzkoan bizi direnak aseago (6,9), Araban edo Bizkaian (6,7) baino. Gipuzkoan jaioak aseago (7,0) Araban (6,8), Bizkaian (6,7) eta batez ere atzerrian (6,5) baino.

Asean, 16-24 urte bitartekoak (7,3) eta bikoteak (6,9) guraso izan zein ez.

Nota hobetzen dute prestakuntza-mailak eta antzemandako osasunak.

Pertsonetikiko konfiantzan (6,5) eragin handia gizarte klaseak eta osasunak

Notarik onena (6,8) gizarte klase altuko edo ertain-altuko pertsonak; txarrena (5,8) osasun eskasekoek.

Biztanleen %30,5ek konfiantza "handia"; %10,3k "txikia".

Emakumeek 6,5; gizonek 6,4. Gipuzkoan bizi direnek 6,5; Araban eta Bizkaian 6,4.

Botere publikoekiko konfiantzak (4,5) notarik txarrena, halere hobera egin du, 1,1 puntuz 2014tik

Biztanleen %5,3k konfiantza "handia" du botere publikoetan; %48,6k "txikia"; "nahikoaren" azpitik dagoen adierazle bakarra.

"Nahikoa" dute bakarrik atzeritarren artean (5,4) eta gizarte klase altuko edo ertain-altuko pertsonen artean (5,0).

Emakumeen konfiantza 4,6; gizonena 4,3. 25-34 urte bitartekoek dute konfiantzarik txikiena (4,2) sistema politikoan, judizialean eta polizian.

Nota hobetzen dute gizarte klase altuagoak eta antzemandako osasunak.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62